



Hogei bat haur bildu ziren kultur etxeko aretoko oholtza gainean, *Da Te Danza* taldeko kolore eta mugimenduz betetako *Tondo Redondo* lana ikusteko.

## Bizitza haurrei azaltzen

■ *Lasarte-Oria Dantzan 2009* ekimeneko azken emanaldiak publiko berezia izan zuen kulturetxean, lau urte bitarteko haurrak

Ostiral arratsaldean, publiko berezia egon zen Manuel Lekuona kulturetxeko aretoan. Oholtza gainean eserita, txintxo-txintxo 20 bat haurrek *Tondo Redondo* dantza garaikideaz gozatu zuten. Kolore, forma biribildunak, mugimendua eta musika, hau guztia, haurrekin harreman zuzena lortu eta bizitzaren zikloa azaltzeko. •



Txapelketa Nagusiari buruzko bertso tertuliak antolatuko dira Xirimiri eta Arrieskalleta elkarteetan /6

KIROLAK / 2

**Behobia-Donostia** lasterketan herritar ugari parte hartu zuen

UDALBATZARRA / 3

**2010eko Ordenantza fiskalen** aldaketa onetsi zen

ASIA/5

**Udazkenean** eguna argitu orduko mendian dira ehiztariak

## Inmigrazioa aztergai

Emakumeen Zentro Zibikoko kideek hilabeteroko bideoforuma burutu zuten ostiralean. Montxo Armendariz zuzendariaren *Cartas de Alou* filma ikusi eta bertan agertzen diren gaiak aztertu zituzten. Filman elkarrizketa gutxi dago eta gehiena atzerritarrei buruz, honek hausnarketa erraztu eta, filma bukatu ostean, emakumeek inmigratioa, arrazakeria eta etorkinek kasu batzuetan pairatu behar dituzten lan baldintza gogorrez mintzo ziren. •



## Amaraun LUDOTEKA

Ludotekan jolasa...  
ikasi eta ondo pasa

Zatoz  
eta probatu  
konpromisorik gabe!

# Euria eta haizearen kontrako norabidean, Behobiatik Donostiara



Lasarteoriatar batzuk atzo goizean Euskotren geltokian Behobiaruntz abiatzeko prest.

## TXINTXARRI

Kazkabarra, euria, eta haizea nagusi Behobia-Donostiako 45. edizioan. Hala ere, eguraldiak ez zizkien animuak eta parte hartzeko gogoak ezabatu atzo Behobiako mugan elkartu ziren 19.449 dortsaldunei. Goizeko 11:00etan, korrikalari guztiak prest zeuden irteera puntuan, eguraldiak ez zituen gelditu behar, eta aurreko urtean egindako denborak hobetu nahian abiatu ziren Donostiako Bulebarreruntz.

Itxaso Garcia Saez izan zen lehenengo lasarteoriatar emakumea Donostiara iristen, eta gizonezkoetan, Raul Gomez Margallo

## Ordu aurrerapena

Eguraldiaren ondorioz, aulki gurgildunen irteera 25 minutu aurreratu behar izan zuten antolakuntzatik. Goizeko 10:35ean ateratu beharrean, aur-

ten 10:10ean hasi zuten proba.

“Haizearen indarrak eragin du azken orduko aldaketa hau, bestela, berehala harrapatuko zituzten gainerako kirolariak aulki gurgildunetan doazen parte-hartzaileak” adierazi zuten antolakuntzatik.

Kategoria honetan, Patxi Fadrique lasarteoriatarra ikusi ahal izan genuen erdi-maratoian. Bere lehenengo urtea, eta segur aski eguraldiarengatik inoiz ahaztuko ez duena.

## Irabazleak

Rafael Iglesias Borrego, salamankarra, 1:01:16 denborarekin, gizonetakoetan, Behobia-Donostiako 45. edizioako irabazlea izan dugu. Emakumezkoetan, Maria Jose Pueyo Bergua, aragoiarra, 1:12:15 denborarekin lehenengo sartu zen Donostiako Boulevardean.

Eguraldiak ez zuten Behobia-Donostia ikuskizuna apur-

## Lasarteoriatarren emaitzak

204 Raul Gomez 1:14:30; 406 Julen Ollokiegi 1:17:11; 494 Endika Garcia 1:17:51; 646 Jose Luis Delgado 1:18:57; 682 Toño Perez 1:19:10; 750 Iñigo Pegenaute 1:19:32; 764 Francisco Borja Romero 1:19:40; 795 Javi Gil 1:19:52; 863 Imanol Arteaga 1:20:15; 1012 Tomas Gonzalez 1:21:16; 1097 Pablo Romero 1:21:45; 1161 Jose Antonio Curiel 1:22:01; 1167 Juanan Centeno 1:22:03; 1321 Mikel Izagirre 1:22:47; 1365 Pablo Utero 1:23:01; 1373 Ismael Hernandez 1:23:03; 1614 Antonio Mazo 1:23:54; 1826 Javier Tranche 1:24:43; 1916 Marcos Bujanda 1:25:03; 2003 Javier Olazagoitia 1:25:2; 2074 Iraitz Arruabarrena 1:25:41; 2116 Raul Barrera 1:25:50; 2123 Eduardo Ormazabal 1:25:51; 2136 Mikel Villarroya 1:25:53; 2450 Eduardo Rivas 1:26:57; 2537 Iñigo Gómez 1:27:17; 2753 Juan María Marcos 1:27:55; 2878 Joxe Goikoetxea

1:28:12; 3097 Manuel Noriega 1:28:46; 3123 Juan Mari Sarobe 1:28:50; 3192 Iñaki Sudupe 1:29:01; 3322 José Miguel González 1:29:20; 3337 Fede Otaegi 1:29:22; 3341 Francisco Javier Ruiz 1:29:23; 3345 Xabier Esnaola 1:29:24; 3375 Aritz Corcuera 1:29:29; 3416 Joseba Iparraguirre 1:29:36; 3461 Ander Carrillo 1:29:43; 3557 Alberto Arbizu 1:30:00; 3832 Jose Ignacio Elvira 1:30:41; 3926 Igor Amantegui 1:30:59; 3994 Gorka Mateo 1:31:11; 4034 Mikel Ormazabal 1:31:18; 4088 Antonio Galan 1:31:29; 4089 Jose Maria Buron 1:31:29; 4453 José Miguel Andonegi 1:32:30; 4547 Iñaki Mangas 1:32:46; 4679 Eduardo Franco 1:33:08; 4862 Jose Joaquin Peña 1:33:38; 4910 Roberto Ortega 1:33:45; 4992 Asier Gorostegi 1:33:56; 5198 Carlos Bezanilla 1:34:21; 5261 Aitor Erauskin 1:34:30; 5361 Txetxu Merchan 1:34:46; 5582 Sergio Rivera 1:35:17; 6030 Carlos Martínez 1:36:25; 6039 Tomas Arruti 1:36:25; 6087 Mikel Corta 1:36:34; 6094 Ibon Gorraiz 1:36:35; 6132 Alvaro Mendive 1:36:40; 6152 Jesus Balerdi 1:36:42; 6187 Ion Ormazabal 1:36:52; 6458 Jesus M<sup>o</sup> Arozena 1:37:26; 6783 Julen Vega 1:38:08; 6785 Jose Antonio Tudero 1:38:08; 6859 Joseba Lizeaga 1:38:18; 6869 Mikel Escaño 1:38:20; 6880 Peio Fadrique 1:38:21; 6884 Joxean Belartieta 1:38:21; 6916 Manuel Méndez 1:38:27; 6926 Itxaso Garcia 1:38:28; 6936 Eduardo Galardi 1:38:31; 7476 Fernando Egaña 1:39:49; 7581 Roberto Rebe 1:40:01; 7682 Faustino Fecharroman 1:40:14; 8111 Aitor Arrieta 1:41:22; 8183 Juan Mari Artola 1:41:33; 8209 Josu Riezu 1:41:36; 8300 Gorka Alvarez 1:41:49; 8540 Sergio Mendez 1:42:27; 8562 Francisco Aristimuño 1:42:31; 8573 Tomas Aldaz 1:42:33; 8820 Ruben Oyaga 1:43:11; 9011 Mikel Rivera

1:43:42; 9026 Diego Moran 1:43:44; 9827 Mikel Zarra 1:45:58; 10116 Juan Antonio Valdivia 1:46:47; 10319 Javier; Molano 1:47:21; 10461 Roberto Lahidalga 1:47:46; 10659 Victor Morales 1:48:19; 10732 Juan Jose Molan O 1:48:31; 10973 Iñaki Rakamonde 1:49:09; 10981 David Bernabeu 1:49:10; 10998 Maite Toquero 1:49:14; 11062 Javi Lopez 1:49:26; 11123 Fran Puertas 1:49:41; 11136 Naiara Aizpurua 1:49:43; 11380 Katxu Altuna 1:50:32; 11411 Tomás Iglesias 1:50:38; 11580 Iñaki Azpiroz 1:51:18; 11774 Aitor Sorozabal 1:52:06; 11818 Iban Martin 1:52:16; 11862 Miguel Angel García 1:52:26; 11884 Manuel Paino 1:52:34; 11914 Izaskun Salazar 1:52:42; 12036 Naiara Mendiluce 1:53:10; 12057 Jon Arroyo 1:53:15; 12392 Jesus Marcelo Huerta 1:54:42; 12456 Aitor Otero 1:54:57; 12582 Leire Paino 1:55:28; 12598 Argoitz Arruabarrena 1:55:33; 12600 Eneko Del Campo 1:55:34; 12826 Juanjo Aldaz 1:56:32; 12874 Miren Iturbe 1:56:50; 12921 Fernando Abete 1:57:04; 13060 Miguel Angel Sanchez 1:57:53; 13062 Iñigo Valdivia 1:57:54; 13074 Ivan Jaraiz 1:57:56; 13102 Igor Aristizabal 1:58:08; 13166 Mikel Jimenez 1:58:28; 13222 Juan Mari Gastesi 1:58:49; 13246 Oihana Salazar 1:58:59; 13248 Eugeni Ojanguren 1:59:00; 13368 Ioseba Beraceochea 1:59:32; 13372 Iñaki Larrocea 1:59:34; 13420 Fco. Javier Rodriguez 1:59:58; 13448 Jose Javier Alonso 2:00:10; 13575 Aritz Irigoyen 2:00:58; 13628 Sergio Quintana 2:01:20; 13752 Eduardo Rodriguez 2:02:19; 13770 Elixabete Lorenzo 2:02:26; 14083 Raul Molano 2:05:28; 14087 Laura Carrillo 2:05:29; 14202 Sergio Rodriguez 2:07:09; 14551 Iñaki Alkorta 2:13:15; 14552 Eneko Alkorta 2:13:16; 14843 Irune Alzola 2:25:21 •



Nazioarteko judokekin lehiatu behar izan ziren Gorka Aristegiren gaztetxoak Avilesen.

Arg:Avileseko Judo Kluba

## LOKEko judokek bi brontzeko domina lortu dituzte Avilesen

Lehenengo asteburuan, LOKEko judokek Avilesera egin zuten.

Gorka Aristegiren mutilek junior, kadete, infantil eta alebin mailetak nazioarteko lehiaketan parte hartu, Portugalgo eta Estatu osoko judoken aurka borrokatu eta brontzeko bi domina ekarri zituzten herrira.

Dominetako bat junior mailan iritsi zen, Leire Zubizarretaren eskutik. Leirek bere mailako finalurrekoetara iritsi zen. Bertan, txapelketako irabazlea izango zena aurrez-aurre izan eta borroka galdu

zuen.

Bigarren domina, berri, Asier Bargallo kadeteak eskuratu zuen. Mutilen kasuan, lehiakide kopuruarengatik bi talde egin behar izan zituzten ia maila guztietan eta talde bakoitzeko irabazleek final nagusia jokatuko zuten.

Honela, bi borroka irabazi eta bere taldeko finalera iritsi zen. Baina final nagusiko atean geratu zen, hau galduez. LOKEko gainontzeko judokak final laurdenetan edo zortzirenetan kanporatuak izan ziren. •

# 2010eko Ordenantza fiskalen aldaketa aurrera atera zen

■ Aldaketaren ondorioz, estolderia, hondakinen bilketa eta kiroldegiko zerbitzuen tasak igoko dira

TXINTXARRI

2010 urterako ordenantza fiskalak aldatzeko espedienteak onetsi zen ostiralean PSOEko zinegotzien bozkek. EAJ, PP eta zinegotzi ez adskribituek aurka eta LOHP eta EB abstenu ziren.

Era honetara, besteak beste, estolderia eta hondakinen bilketa %5 igoko dira, kiroldegiko zerbitzuen prezioak ere gora egingo du.

Eta, bestetik, zirkulazio zerga eta Ondasun higiezin zerga mantenduko dituzte.

## Emendakinak

Baina aurretik, aldaketa honi egindako emendakinak aurkeztu zituzten EAJ eta zinegotzi ez adskribituek.

EAJk zuzenketa osoa aurkeztu zuen. Honela, Estitxu Alkorta bozeramaileak proiektu hau atzera botatzea eskatu zuen, proiektua hobetzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez diren bitartean.

“Zergak gehitu ala murriztu behar ote diren eztabaidatzen hasi baino lehen, oposizioan garenok eskubidea dugu egungo egoera ekonomikoaren eta datorren urtean izango denaren berri jakiteko,” adierazi zuen.

Izan ere, EAJk aipatu zuenez, aurtengo egoera ekonomikoari buruz ez dio oposizioari



Hondakinen bilketa eta estolderiaren zergak izango dira hurrengo urtean goberna gehien jasango dutenak.

datu bat ere eman Udalak zein egoeratan bukatuko duen jakiteko, eta gutxiago oraindik nola aurre egin behar 2010ari.

Bestetik, ordenantza aldatzeko proiektu oso mugatua dela, aipatu zuen Alkorta andreak eta Udala Gobernuak ez dituela dagokion Batzordean azaldu aldaketa honen aurrebaldintzak.

Emendakina ez zen aurrera eramanez PSOE, PP, LOHP ren bozkei esker. Zinegotzi ez adskribituek eta EBk abstentzioaren aldeko agertu ziren gai honetan.

Ostean, zinegotzi ez adskribituek bere emendakina aurkeztu zuten. Honetan, zergen bilketa sistema zuzena ez dela salatu eta errotik aldatu behar dela adierazi zuten.

“Eskuak loturik ditugu beste instituzio batzuek erabakitzen dutelako zein izango den gure finantziarioa, gure ekimen eta politikak erabat baldintzatuta daude inoiz ez dakigulako

noraino izango dugun laguntza bat edo ez,” aipatu zuten.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalei dirua bueltatzea eskatzea ere sistemaren errua dela adierazi zuten, “hau ez da krisiaren ondorio, beraien bultzatu dituzten politika fiskal eta zerga aldaketek sortu dute egoera”.

Eta honen ondorioak ere, aipatu zituzten, “hurrengo urterako finantziarioa murriztea udalerrietan eragin zuzena

izango du.”

Hau guztiagatik, zergen tarifak bere horretan uztearen alde ageri ziren zinegotzi ez adskribituek.

Eta, bestetik, konpostagailua duten etxebizitzetako zabor bilketaren tasaren %40ko hoberia izatea proposatu zuten.

## Eztabaida

EBko Rikardo Ortegak hitz hartu zuen orduan. Ez adskribituekin bat etorri zen konpostagailuaren puntuan eta, horregatik, emendakina *in voce* moduan aurkeztu nahi zuela esan zuen.

Alkateak idazkariari galdetu eta baietza eman ostean, oposizioari alderdiek eztabaida sortu zuten emendakinak noiz aurkeztu behar direnaren harira.

Orduan, EAJko Juan Mari Iradiak, udalbatzarreko seriotasun ezagatik eta Udala Gobernuaren jokaerarekin bat ez zegoelako Udalbatzarra utzi zuen.

Honen ostean, ez adskribituen emendakina bozkatu eta PSOE eta PPren bozkek atzera botatu zuten proposamena.

Eta azkenik, Ortegaren jaunaren emendakinen txanda izan zen eta ez zen aurrera atera PSOE eta PPren bozkei esker. EAJ eta LOHP abstenu ziren. •

## LH3 eta LH6ko gaztetxoentzat Gazte kluba eta Gazteburuak

Ttaku kultur elkartereko Aisia sailak Lasarte-Oriako 9 eta 12 urte arteko gazteak gonbidatu nahi ditu Amaraun Ludotekara hurbildu eta Gazte kluba eza gutzera.

Hitzordua ostirala honetan 17:30etan izango da bertan ondo pasatu eta lagun berriak egiteko aukera izango duzue.

Honetaz gain, ostiralero ekintza ugari egiteko aukera izango duzue, hala nola, malabar, magia, tailerrak, jolasak, sukaldaritza.

### Gazteburua

Aurten, gainera, berrikuntza bat dakar Gazte klubak, *Gazteburuak*.

Hilean behin egingo den ekintza honetan itteerak, festak, gaubelak, berbenak, etab antolatuko dira asteburuetako aisia indartzeko.

9-12 urteko gaztetxoek zuzendutako ekimena dugu, hortaz, udako txokoetan eta Kanpaldietan ibili diren adin horietako gaztetxoek, zein Gazte klubean daudenek parte hartu dezakete asteburu berezi hauetan.

Ttakuneko aisia sailak azaldu duenez, ekimen honen helburuak bi dira, batetik gaztetxoek aisialdiaz gozatzeko aukera ematea eta, bestetik, Udako txoko eta Kanpaldietan sortu diren harremanak mantentzea.

### Proiektzioa eta berbena

Honela, *Gazteburuetako* lehenengo ekintza, azaroaren 14ean, larunbatean antolatu da Manuel Lekuona kultur etxean.

Arratsaldeko 17:30etan dute hitzordua Udako txoko eta Kanpaldietako gaztetxoek.



Aldrebes egunean ederki pasa zuten Mendigorriako kanpaldiko gaztetxoek.

Bertan taldeak banatu eta udako oroitzapenak gogora ekarriko dituzte argazkien proiektzioari esker.

Eta, ostean, begiraleekin egoteko tarte izango dute.

Arratsaldea era parega-

bean bukatzeko, *Gazte klubeko* gaztetxoek guztiak egin eta musika, jokoak eta emanaldiak bateratzen dituen berbena egingo da 18:30etatik 20:30etara kafetegian. •

## LANAK

### Loidi kalean lanean hasiko dira gaur

Loidi-Barren eremuko urbanizatze lanak direla eta, Lasarte-Oriako Udalak jakitera ematen du, gaur Loidi Kalean lanean hasiko direla.

Espaloietan egingo dira lanak eta ez dute eraginik izango trafikoa, bai ordea oinezkoen bidean eta bertan dauden garajeetan.

Horregatik, Udalak bizilagunei barkamena eskatu nahi die sortu daitezkeen eragozpenengatik.

## KOOPERAZIOA

### Hitzaldia asteartean

Lasarte-Oriako Udalak eta Prosalus GKEK elkarrekin aurrera eramandako proiektuak eta lan ildoak azaltzeko hitzaldia izango da Manuel Lekuona kultur etxean, 19:30ean. •

# ‘Birziklapenaren etorkizuna atez atekoa da’

- Edukiontzia arte lan bihurturik iritsiko zaizkigu ostegunean, hilaren 12an, Lasarte-Oriara
- Erakusketa ibiltariarekin batera, stand-a jarriko da birziklapenaren inguruko informazioarekin

Atez ateko bilketa ez da Lasarte-Oriara iritsiko, horren ordez, bostgarren edukiontzia ezartzea da Udalaren intentzioa. Birziklapena berriegia da oraindik gure gizartean, informazio asko jasotzen dugun arren, hutsune asko ditugu zaborrak gaika sailkatu behar ditugunean. San Markos Mankomunitateak urtero bezala, ditugun ezjakintasun horiei irtenbidea eman nahian ekimen bat martxan jarri du, Reziklarte delakoa. Edukiontzia arte lan bihurtzeko lehiaketa interesgarria, eta gure herrira iristear dago.

## TXINTXARRI

### Zer da Reziklarte?

Gaikako bilketarekin lotutako mezuak artearen ikuspegitik indartzea helburu duen kanpaina da. San Markos Mankomunitateak, garapen iraunkorrarekin duen konpromezuaren barnean kokatuta dagoena.

### Nolatan sortu zen ekimen honen ideia?

Idea Ecovidrio eta Ecoembres-ek proposatu ziguten, gainera gauzatzeko beharrezko diru laguntza ere eman ziguten. Oso interesgarria eta deigarria iruditu zitzaigun, aurrekotan egin ditugun kanpainetara zertxobait gehiago gehitzen zielako, erakargarritasuna. Arte bidetik, zaborren mundura, hain zikina den mundu horretara hurbilduz.

### Zer dela eta edukiontzia zaharrak berrereabilari arte lanetan bihurtuz?

Hondakinen kudeaketa-sisteman atez ateko gaikako bilketa sartu zenetik, edukiontzien lekua hartu du esekitokien sistemak, eta hori aprobetxatuz jendea kontzientziatzeko modu ikusgarria iruditu zitzaigun Reziklarte.

### Parte hartzaileen arte lanekin, erakusketa ibiltaria antolatuta da. Lasarte-Oriara ostegunean, hilaren 12an iritsiko da, zer ikusiko da bertan?

64 lan aurkeztu ziren Reziklartera, kriba egin eta gero, 26 arte lan gauzatu ziren. Guztiak elkarrekin Donostian egon dira, eta azken astean Errenderian ikusi ahal izango ditugu. Gu Lasarten 13 arte lan, erdia, baka-rrik izango dugu ikusgai. Kaleetan ikusten ditugun ontzi horiak, plastikoa botatzeko erabiltzen ditugunak, arte lan bihurtuak erakutsiko zaizkigu. Artista bakoitzak birziklapenaren inguruan duen ideia plasmatuta. Gure herrian Andatza plazan egongo da, eta jende-

guztia animatuko nuke gerturatzeko eta arte lan hauetan disfrutatzen.

### Arteaz aparte, informazio gunea ere izango da erakusketa ibiltaria. Ze informazio mota egongo da eskuragarri?

Herritarrei informatzea eta artatzea izango da helburua, birziklapenaren inguruko dudak argitzeko asmoarekin. Askotan material batzuk non bota behar dugun dudak ditugu, beraz, birziklatze lerro bakoitzari zer dagokion azalduko zaigu; zer bota, zer ez... Hori bera konprobatzeko eta ikusteko, joko batzuk egongo dira. Ikus-entzunezkoak ere egongo dira bideo batzuk ikusteko, eta azpimarratzekoa da, Usurbilgo atez ateko esperientzia ere ikusteko aukera egongo dela; mekanika eta emaitzak. Gauzak objektiboki ezagutzeko aukera ona eskaini nahi dugu.

Gainera honetaz aparte, jendeak ikusten dituen arte lanak bozkatu ahal izango ditu, eta erakusketa amaitzerakoan, boto gehien jaso dituzten bi edukiontzien egileek saria jasoko dute.



Ricardo Ortega, San Markos Mankomunitateko lehendakaria.



Erakusketa ibiltariarekin batera informazio gune bat ere ezarriko da Ardatza Plazan.

### Ondo hezi al gaituzte birziklapenaren inguruan?

Heziketa saioak egin dira, orain dela gutxi, hemen Lasarte-Oriara bertan, liburuxka batzuk banatu dira jendeak izan ditzaketen dudak argitu nahian, adibide nahiko argiekin. Modu oso grafikoan, didaktikoan, begietatik erraz sartzen den formatu batean egiten saiatu gara. Gauzak jaso egiten dira, irakurri, eta gero ahaztu. Horregatik, nik uste, gai honen inguruan askotan ibili behar garela informazioa helarazten. Denborarekin, poliki-poliki gizarteak ikasten doa.

### Gizarteak bal daki benetan birziklapenak duen garrantzia?

Neurri batean bakarrik.

Senak berak esaten digunaren arabera; ekologia aldetik, energia aurrezteko, materialak aurrezteko, kontaminazio gutxiago sortzeko... baina orokorrean, dituen eragin sakonetatik, nik uste, ez direla jabetzen, orokorrean, nahiz susmo batzuk badituzten.

### Zeintzuk dira erronkak beraz, gure heziketa lortzeko?

Informazioa ematen jarraitzea, horrela sentsibilizazioaren bitartez eragin ahal izateko. Hala ere, bizi garen gizarte honetan, egunero, une oron, mezuak jasotzen ditugu, eta hauetako asko, etorri ahal joan egiten zaizkigu, ez ditugu barneratzen.

### Non dago birziklapenaren etorkizuna?

Orokorrean, zaborraren kudeaketaren gakoa, gaur egun, bilketa sisteman dago. Orain arteko sistemarekin ikusi egin da, aurrerapen batzuk egin direla, baina ematen du jada tope batera iristen ari garela. Ikusi ahal izan dugunez, atez atekoa jarrita dagoen tokietan, lortu diren emaitzak oso onak izan dira. Nik argi daukat beraz, etorkizuna hori dela.

Honen inguruan, tratamendu sistemari dagokionez, beste eztabaidak eman behar dira. Hau da, zabortegeiak edota erraustea... Baina gakoa bilketa sisteman dago.

Bilketa sistema berri honetan, beno hain berria ere ez da, orain dela urte batzuetako berbera dugu, baina hobea

da, gauzak sailkatua, behar bezala egindakoak. Askok aipatzen dute, bilketa mota honek kostuak garestitzen dituela, egia da, baina tratamenduan aurrezten dugunarekin alderatuz, ekonomikoki merezi du. Horretaz aparte, ekologikoki, osasunaren aldetik ere askoz eraginkorragoa da.

### Lasarten atez atekoari ezetz esan, eta bosgarren ontzi bat ipintzearen alde agertu dira. Eraginkorra izan daiteke?

Partzuergoak Amara auzoan proiektu pilotua bultzatu zuen, eta orain abenduan amaituko da. Aurreko astean prentsa irakurri ahal izan genuen moduan, Donostiako Udalak birplanteatzen ari da bosgarren edukiontzia hori Amaran mantentzea, nahiz eta hasiera batean, beste auzoetara zabaldu nahia adierazi zuten, baina arazo ekonomikoak sistema hau kolokan jarri du. Ekonomikoki beraz, nik uste argi dagoela izugarriko gastua dakarrela, lortzen diren emaitza hain txikiak.

Gainera, nik uste dut ez direla borondatez parte hartzea bultzatzen gaituen sistema garatu behar, baizik eta biztanle guztiak parte hartzaile egiten gaituen sistema batekiko apustua egin behar dela. Eta argi daukadana da, bi sistemak ezin direla aldi berean mantendu, gastuak bikoiztu egingo bailirateke, eta atarramentu txikiak.

### Etorkizuna atez atekoan, beraz?

Nik uste dut, gero eta nabarmenagoa ikusiko dugula. •

Josu Sarasola Ehiza arduraduna Buruntz Azpi elkarte

# ‘Ehiztaria mendizalea izaten da’

■ Udazkena da ehiztarien gustoko garaia ■ Tortolak aurrena gero usoak eta azkenik birigarroak botatzen dituzte ■ Urtean zehar lehiaketak antolatzen ditu Buruntz-Azpik

Buruntz-Azpi elkartearen izan gara ehiza denboraldia nola doan ezagutzeko. Josu Sarasola, ehiza saileko arduradunak azaldu digunez, urriaren 12tik aurrera egunero egiten dute postuen zozketa elkartearen. Irailean tortolak ehizatzen hasten dira, gero usoak eta azkenik birigarroak. Astean zehar 15-20 lagunek parte hartzen du 18 postuen zozketan eta asteburuari begira ostira-lekoan, jende gehiagok.

JON ALTUNA



Josu Sarasolak eman zigun Buruntz-Azpi elkartearen ehiza denboraldiaren berri.

Udazkena heltzean, egunak argitu orduko, ehiztariak mendi aldeira jotzen dute, postuetan ordu batzuk pasatzeko uso edo birigarroen zain; ondoren elkartearen hamaiketako egin eta bazkaltzera etxera joaten dira gehienak. Ehizako araudia zaharra da, 1971koa, baina argia: gauzez ezin da ehizarik egin, ilundu baino lehen aritu beharra dute. Buruntz Azpi elkartearen ehiztariak aurten usoren bat edo beste eta birigarro asko bota dituztela kontatu digu Josu Sarasola elkartearen arduradunak. "Izan ere, hauek ez dira postu oso onak. Hau oso behean dago, eta horregatik jende gutxi etortzen da zozketara. Mendi altuagoak hobeak dira, Urmieta eta Andoainen badaude usotarako postu hobeak, 40 bat guztira, baina gehiago balio dute".

## Udazkenean izaten da ehiza denboraldia beraz?

Gu irailaren erdi aldean hasten gara zozketak egiten, tortola garaian. Baina azken urteotan ez da tortolarik pasatzen. Gero urrian usoak eta azaroan birigarroak datoz. Usoa gehiena pasa da jada eta orain birigarroa pasatzen ari da. Hau txikixeagoa da baina asko pasatzen da.

## Eta bestela, urtean zehar zer egiten duzue?

Txapelketa ezberdinak egiten dira. Batetik eperren eta faisaren ehiza zakurrarekin, beste-

tik plater tiraketa eta hirugarren bat galeperren ehiza.

## Zuek ehiza kirola dela uste duzue?

Bai, kirola da zalantzarik gabeko.

## Eta gizonen kirola? Aritzen al da neskarik ehizan?

Bai bada hemen txapelketetan oso ondo ibiltzen den bat. Gipuzkoa mailan badira lau edo bost neska.

## Garestia al da zaletasun hau?

Ez da merkea izaten. 25 kartxoko kaxa 5-6 euro dira baina gero paperak atera behar dira, lizentzia, aseguru eta abar; hau hemen ibiltzeko librea eta gero askok kotoak daukate, Salamancara, Soriarra edo Burgosera joaten dira galeper edo eperrek ehizatzen, baina nik ez dakit, ni neu ez naiz ehiztaria. Aurten Buruntz Azpi elkartearen ehiza arduraduna naiz.

Eta beste batzuk Nafarroara ere joaten dira basurdetara. Elkartearen badaude koadrila batzuk basurdetan ibiltzen direnak.

## Ehizatutako txori eta basurdeak hemen bertan jaten al dira gero?

Bai, garai honetan afari asko egiten dira usoak jateko.

## Sukaldari finak ere izango dira beraz?

Bai beti izaten dira elkartearen usoak prestatzen dituztenak edo basurdeak, orkatzak,...

## Ekologistek diote gaur egun ez duela zentzurik ehizak. Zuek zein iritzi duzue?

Zer esango dizut ba, hau Arrantza eta Ehiza elkarte da eta. Ehiza beti egon da eta nik uste dut beti egongo dela. Gainera diru asko mugitzen du ehizak, lizentzia, arma, kotoa... lanpostuak ere sortzen dira. Toki batzutan urte guztian prestatzen ari dira gero jendea ehizara hara joateko. Milaka ehiztari dago.

## Hainbeste ehiztarekin, Kantauriko arrainak bezala ez dira ba txoriak galduko?

Beti izan da pasea. Urteak izaten dira gehiago edo gutxiago pasatzen direnak, baina...

## Askotan eguraldi txarrarekin ibili behar, eta hala ere gozatu egiten al dute ehiztariak?

Bai, horretarako sentitu egin behar da. Ni ehiztaria izandakoa naiz eta mendian ez da hotzik pasatzen. Nola esaten da, gustuko tokian aldaparik ez. Horrela izaten da, gustatu egin behar. Ni perretxikotan ibiltzen naiz eta maldan gora edo maldan behera, baina gustura. Gero etortzen naizenean, "a ze paliza hartu dudana!" diot, baina bitartean gustura ibiltzen naiz.

## Ehiztariak perretxikotan ere ibiltzen al dira, ba?

Bai, ondoko ateratzen hasten direnean mugitzen da hementxo jendea, ehiztaria normalean mendizalea izaten baita.

## Elkarteko ehiztarien artean zein da ondoen dabilena?

Txapelketa batean batek irabazten du, bestean besteak, maila asko daude eta ez naiz ausartzen zein den onena esaten.

## Eta zein da zaletasun gehien duena?

Jubilatu bat bada, 77 bat urte ditu, Antonio Carrasco, txapelketetan ibiltzen da zakurrarekin. Zaletasun handia du. Hori esango nuke, daukan adina izanda ere, hona eta hara ibiltzen da eta. •

## Ehizari uko egiteko garaia

Gizakia gizaki denetik, ehizaz baliatu da bere dieta proteinaz hornitzeko. Baina ni ez naiz lerro hauek ehiza horretaz ariko; nolabait esateko, ez naiz ariko Tasiok ezkutuka egiten zuen eta garai latzetan bizirautean laguntzen zion ehizaz. Ni ariko naiz gaur egun eta hemen egiten den ehizaz, Gipuzkoan bertan kirol edo denborapasa moduan egiten den ehizaz.

Eta animalien ustezko eskubideekin zerikusia duten eztabaidetan ere ez naiz sartuko, sar nintekeen arren. Nik konstatazio batzuk bakarrik egin nahi ditut... Gipuzkoa oso eremu txikia da eta oso-oso urbanizatuta dago, gero eta gehiago, gainera; horren ondorioz, naturguneak gero eta urriagoak dira. Inon baino ehiza-lizentzia gehiago dugu, ordea.

Geratzen zaizkigun naturgune urrien zaintza eta Gipuzkoako populazio ugariaren aisialdi-beharrak bateragarriak izango badira, aisialdi-moduak leunak eta, batez ere, iraunkorrak izan behar dira. Nire ustez, gaur egun eta hemen, ehizak, faunari eta oro har naturari kalte egiteaz gain, mendiaz disfrutatzeke beste moduei traba egiten die, argi eta garbi. Are gehiago, sarri arrisksua da. Beraz, ez da jardura leuna, ezta iraunkorra ere, kaltegarria baizik. Eta hori ondo edo, hobeto esan, araeu jarraituz egiten denean.

Izan ere, ehiztari on eta txarrei buruzko eztabaida antzuetan sartu gabe ere, ehizak sortzen dituen kalte ukazinen adibide moduan, beste konstatazio bat egin nahi dut: urteak joan, urteak etorri, Arrano Etxera artatzen daramatzaten hegazti babestu gehienak tiroz zaurituta iristen dira. "Ehiztari txarrek botata", dioskute ehiztari "onek". Jakina, jakina. Egia esan, inoiz ez dugu bere burua txarren artean sailkatzen zuen ehiztariarik. Eta, hala ere, urtero zenbat animalia zauritu iristen den ikusita, noizbait ondorioztatuko beharko da ehiztari "txar" askotxo dagoela, ezta?

Nik badakit askoren baitan ehiza sakon baino sakonago sustraitutako pasioa dela. Pasioak ederrak izan daitezke, baita kaltegarriak ere, eta, nire ustez, gaur egun eta hemen, bada ehizari uko egiteko garaia.

Martin Anso, Eguzki

“ Mendian ez da hotzik pasatzen. " Gustuko tokian aldaparik ez ". Horrela da, sentitu egin behar da. ”

## Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia

## Bertsozaleen arteko tertuliak

■ Ttakun Bertso Eskolak antolatu ditu Xirimiri eta Arrieskaleta elkartetan ■ Afari meriendatan Txapelketa Nagusiko irudiak ikusi ondoren, saioetako gorabehera aipagarrienak aztertuko dira ■ Bi porratan batetik finalistak, eta bestetik txapelduna eta finaleko ordena asmatu behar dira

Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusiko alderdi ezberdinak komentatuko dira bertso tertulietan. Txapelketa-ko irudiak ikusi eta gero zabalduko da eztabaida. Azaroaren 17an Xirimiri elkartean egingo den lehen tertulian herriko bertsolarien saioak jorratuko dira, eta abenduaren 1ean Arrieskaleta elkartean egingo den bigarrenean finalerdietako saioak nola doazen eta finalari begira dauden ikuspuntu eta aukerak aztertuko dira.

JON ALTUNA

Ttakuneko Bertso Eskolak azaroan eta abenduan burutuko diren bi tertuliatan bilduko ditu Lasarteko bertsozaleak. Azaroaren 17an arratsaldeko 20:00etan Xirimirin egingo da lehen afari merienda-tertulia eta abenduaren 1ean ordu berean Arrieskaletan bigarrena. Bertso tertulia hauetan Txapelketa Nagusiko irudiak eskainiko dira eta, horien inguruan, interesa duen edozein egoera edo gai jorratuko dute ondoren.

Herriko bertsozale guztiak daude gonbidatuta bertso tertulietara, eta antolatzaileek esan dutenez guztien parte hartzea izango da mahai inguruei interesa emango diena. Oro har bertsozale orori zabalik dago beraz, txapelketako bertsoak izango dira nagusi, baina beste hainbat arlo azter-



Miren Artetxe, Unai Muña eta Amaia Agirre bertsolariak kantatutako bertsoak ikusi eta komentatuko dira Xirimiriko lehenengo bertso tertulian.

tuko dira. Besteak beste, txapelketa bera, daukan oihartzuna, hartu duen dimentsio, tamaina eta garrantzia, aurreko txapelketekin konparaketa, zer izan zen eta zer den txapelketa, bertsolarien gora beherak,... Bertsozaleek afari meriendetara joateko asmoa baldin badute, Ttakun elkartera deitu beharko dute, 943 371448 telefono zenbakira.

Lehenengo bertso tertulian, 17an Xirimirin, Unai Muña, Amaia Agirre eta Miren Artetxek kanporaketetan egindako lana begiratu dute. Aipatutako bertsolarien bertso batzuk ikusi eta komentatuko dira. Bigarrenean, abenduaren 1ekoan finala nola ikusten den eta final-erdietako saioak nolakoak izan diren aztertuko dira.

### Porra

Bertso Eskolak txapelketa dela eta bi porra egingo ditu. Lehenengoan zazpi finalistak zeintzuk izango diren asmatu beharko da. Porra bakoitzeko euro bat ordainduko da, eta asmatzaileak jasoko du bildutako dirua. Batek baino gehiagok asmatzen badu, hauen artean zozketa egingo da.

Bigarren porran txapelduna nor den eta beste zazpi finalisten postuak asmatu beharko dira. Bertso tertulietan izango da porra egiteko aukera eta herriko tabernetan ere jarriko dira porra egiteko orriak.

### Sarrerak

Txapelketa Nagusiko finala Barakaldoko BECen jokatu da abenduaren 13an, igandea, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 16:30ean.

Finaleko sarrerak salgai daude Jalgi tabernan: 26 euro balio du, Bertsozale Elkarte baskideentzat 18 euro eta gazteentzat 6 euro. Autobusez joan nahi dutenek beste 12 euro ordaindu beharko dituzte eta final egunean 20 euroren truke BECen bertan bazkaltzeko aukera egongo da. Finaleko sarrerak, bertan bazkaltzeko eta autobusez joateko txartelak denak daude salgai. •

*Abenduaren 13ko finaleko sarrerak, BECen bazkaltzeko eta autobusez joateko txartelak salgai daude Jalgin*

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa Mundu bat GKEren eskutik. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.

### Erakusketa

EUSKAL FONDOAREN erakusketa bihartik aurrera Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

## Astelehena, 9

### Ipuin-kontalaria

PELLO ANORGA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 4, 5, eta 6 urteko haurrentzat. Haurrak bakarrik egongo dira eta behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ.


## Ostirala, 13

### Antzerkia

THE... CON MUJERES antzezlanaren Donostiako Teatro Estudio taldearen eskutik. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ

### Djen emanaldia

ROCKSTEADY SKA, Jamaikako musika ipiniko du bideo emanaldiaren ondoren. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan.



## Europar zehar furgonetarekin

KROAZIA ETA BOSNIA egon dira aurtengo udaran herriko KTG taldeko kideak. Bi furgoneta hartu, behar den materiala sartu eta Europara abiatu ziren. Bidaian non eta nola ibili ziren kontatuko dute Maialen Goikoetxeak, Mikel Olaizek, Asier Gorostegik eta Naike Zumetak *Bidaietako Diaporamen zikloaren* barruan asteazkenean.

AZAROAN 11N, ASTEAZKENA  
21:30EAN, EUSKARAZ  
JALGI KAFE-ANTZIKIAN

## Igandea, 15

### Zinea

KIKA SUPERBRUJA Y EL LIBRO DE LOS HECHIZOS haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

## Asteartea, 17

### Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ.

## Asteazkena, 18

### Hitzaldia

GIZAKIEN ARTEKO ERLAZIOA hitzaldia Helena San Pedoren eskutik, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Kulturetxean, 18:00etan.

### Diaporama

TXINA BIZIKLETAZ diaporama eskainiko du Aitzol Etxegoienek. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ.

## Osteguna, 19

### Zinea

AL OTRO LADO filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

## Ostirala, 20

### Kontzertua

Alegiko TXINTXARRI abesbatza-aren emanaldia. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:30ean.

### Kontzertua

R.S. FACTOR (Jazz) taldearen emanaldia Udalak eta Xpresion taldearen hitzarmenaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

### Aurkezpena

VIII. MULTIMUSIKALAREN aurkezpena egongo da eta ondoren, 21:30ak aldera, Petti eta Arramazka taldeen emanaldiak izango dira. Jalgi kafe-antzikian, 21:00etan.

## Asteazkena, 25

### Diaporama

ETIOPIA ETA KENIARI buruz arituko dira solasean Diego Egizabal, Mari Karmen Ormazabal eta Ane Barrenetxea. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean. EUSKARAZ.

## Ostirala, 27

### Kontzertua

JON MINER ETA INTXIXU LOTIEN BANDAK emanaldia eskainiko du Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.

## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea  
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



## Esazu irratiko programazioa

### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix eta Sustrai tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

### Haur baten zapata azaldu da

Urriaren 25ean ospatu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, haur txiki baten zapata marroia azaldu zen Jalgi kafe-antzikian. 3-6 hilabeteko haurrentzako zapata da. Galdu duenak Itakuneko bulegoan jaso dezake.

### Batxilergo tituluak

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2008an bukatu zutenek, batxilergo

tituluak jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

### Buruzpeko Loteria

Sasoeta- Zumaburu herri ikastetxeiko Buruzpe Guraso Elkarteak salgai dauka dagoeneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

### Aterpeko loteria

Aterpeak, Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak, aurreko urteetan bezala Gabonetako loteria atertu du. Loteria hartzeko interesa duten Aterpeko bazkideek, Zumaburuko Iturbe Oinetakoak (Maixa) dendatik pasa daitezela jasotzera. Zorte on guztiei!

### Oztabideko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarre jakin arazten die eguerritako loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetzan eskatzeko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik duela elkarteak.

### Igerileku txikia itxia

Haurtxoekin antolatu diren igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezzen, larunbatetan, goizeko 10:30ak eta 11:00ak bitartean

igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

### Ostadar K.F.-ko Loteria

Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai. Bakoitzak 2,5 euro balio ditu eta horietatik 0,50 euro elkartearantz dira.

Interesa duenak kirol elkarteko egoitzara hurbiltzea besterik ez du, Geltoki kaleko 25. zenbakira.

### Ostadar K.F.-ko ordutegia

Ostadar K.F.-k jakin arazten du, elkarteko egoitza arratsaldez soilik dagoela irekia, 16:00etatik 20:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# 'Kroazia-Bosnia ezagutzea esperientzia paregabea izan da'

- 15 lasarteoriatar ibili dira Europan zehar bidaian abuztuaren 11tik 31ra
- Herrialde ezberdinak eta historia ezagutu dute, dibertsiorako denbora ere izan dute

TXINTXARRI

**A**buztuaren 11an hasi zen Asier Gorostegi, Beñat Bergara, Mikel Olaiz, Naïke Zumeta begiraileen eta 11 gazteen abentura Europatik. Jomuga; Bosnia-Kroazia, baina bidean, Frantzia, Italia, Suitza, Austria, Alemania, Liechestein ere ikusteko aukera izan zuten. Bi furgonetak hartu eta 20 eguneko bidaiari ekin zioten. Bosniak duela urte gutxi bizi izan duen guda eta horren historian busti nahiak bultzatu zituen lasarteoriatar hauek.

Kirola egin, museoak bisitatu, herrialdeen historietaz jabetu, eta nola ez, dibertsiorako denbora ere aurkitu dute gazte hauek. Esperientzia intentsua bizi izan dutena, eguneko 24 orduak elkarrekin pasa dituzte; lekuak bisitatzeko, bazkaria prestatzen, eta lo egiten ere bai. "Bidai interesgarria baina era berean neketsua ere egin zaigu, bero handia egin digu eta gainera dutxa behar genuenean ezin hartu gabe" adierazten du Asier Gorostegik.

## Hegoaldetik ekialdera

Bidaia energiaz hasi, eta lehenengo parada Montpelat mendia, Alpeak, izan ziren. 3.000 metro dituen mendi honek, 2000 metrotik hasi eta igo ere "ez zen hain zaila izan, gazte batzuei nahiko kostatu zitzairen, baina egin genuen" aipatzen du Asier Gorostegi. Ondoren, Italiarantz hartu zuten bidea. Bertan bi herrialde bisitatu



Europan osoa zeharkatu dute, ekialdetik hegoaldera eta buelta. Bosnia-Kroazia zentratu badira ere, beste lurralde ugari bisitatu dituzte.

zituzten planifikatua "hara iritsi eta ikusteko gutxi zutela konturatu, eta Veneziaara joatea erabaki genuen, han ziur genekien ikustekoak anitzak zirela" helarazten du Naïke Zumeta. Hiria ezagutu, miatu eta disfrutatu eta gero Kroaziarantz abiatzeko momentua. Turistikoa da oso. Ondoren Bosnia, bertako historia, kontrasteetat jabetuz. Herrialde modernoak, herrialde bonbardatuak, oraindik bala inpaktuak argi eta garbi ikusiz.

"Bosnian, Sarajevon, Gorazden... guda egon denaren arrastorik ia ez da sumartzeko, eraikinak berriak daude, eraikin modernoak... beste gauza bat da pertsonen

barrenetan geratutako zauriak" adierazten du Asierrek.

## Kroazia-Bosnia

Balkanetako guda orain dela hamar urte komunikabide guztietan genituen, ulertzen saiatu bai, baina askotan ezina. Gazte hauek aukera paregabea izan dute bertako errealitateaz ezagutzeko. SOS Balkansek Dzermina, bosniatar batekin jarri zituen kontaktuan. Gazte hau guda garaia Galizian igaro zuen, baina ondo esplikatuko zuten bere herrialdeak jasandako txikizkia. "Lehenengo pertsonan kontaktu zigan bizitako tragedia, familia ugaritan gertatu dena. Senitartekoak galdu, familiak zatitu, benetan

bizi izan duten dohakabetasun horretaz jabetzeko aukera eman zigun, errealitateaz jabetzeko" adierazten du Mikel Olaizek.

## Europa eskura

"Oso erreza da Europatik bidaiatzea" aipatzen du Mikelek. "Bidai aberasgarria izan da, gauza asko ezagutu eta ikasteko aukera eskaini digu, jendearekiko genituen aurreritziak erabat aldatu zaizkigu gainera" erantzen du. Esperientzia paregabea gazte hauek bizi izan dutena, "momentuan momentukoaz disfrutatzen saiatu gara, giroaz, jendeaz, monumentuetaz, herrialdeetat..." adierazten du Naïkek.

## Diaporama eta blog-a

Gurpil zulaketak, Azucar Moreno Sarajevon egindako parrandan entzutea, gasolina gabe geratu, multa jaso, gutxi dutxatu, muga bateko hesia apurtu, Dachau kontzentrazio kanpoa ezagutzeko aukera, bidai intentsua eta dibertigarria. 20 eguneko Europa ezagutzeko. Hemen bakarrik bidaiako lehen platera eskaini da, bigarren platera eta postrea dastatzeko gogoia izanez gero, [www.blogari.net/ttapa-ttipi](http://www.blogari.net/ttapa-ttipi) blogean, edota asteazkenean, Jalgi kafe-antzoikiak gaueko 21:30ean aukera paregabea. •



Pareja ezin hobea gazteek aukeratu zutena bidaiari hasiera emateko, Montpelat mendia, Alpetan.



Bosniak eskaintzen dituen paraje kontrajarriak. Guda garaiko edifizio hutsa, bonbarketan arrastoekin eta alboan, etxe-orratz moderno bat.